# Ekoiztu 2027

Laguntza deialdia

Centro Huarte

Convocatoria de ayudas

Uharte Zentroa

# OR_3

Etengabeko deialdia

Deialdiaren helburuak

## Estudioak modalitatea

### OR_4

Nori zuzendua

Zer eskaintzen da

Funtzionamendua eta ebazpen datak

### OR_5

Izen ematea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Balorazio irizpideak

### OR_6

Parte hartzeko baldintzak

## Baliabideak modalitatea

### OR_7

Nori zuzendua

Zer eskaintzen da

Funtzionamendua eta ebazpen datak

Finantzietu daitezkeen gastuak

### OR_8

Izen ematea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

### OR_9

Balorazio irizpideak

Parte hartzeko baldintzak

## Autoedizioa modalitatea

### OR_11

Nori zuzendua

Zer eskaintzen da

Funtzionamendua eta ebazpen datak

Finantzietu daitezkeen gastuak

### OR_12

Izen ematea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

### OR_13

Balorazio irizpideak

Parte hartzeko baldintzak

## Cast


P_15
Convocatoria continua
Objetivos de la convocatoria

**Modalidad Estudios**

P_16
A quién se dirige
Qué se ofrece
Funcionamiento y fechas de resolución

P_17
Inscripción y documentación a presentar
Criterios de valoración

P_18
Condiciones de participación

**Modalidad Recursos**

P_19
A quién se dirige
Qué se ofrece
Funcionamiento y fechas de resolución
Gastos financiables

P_20
Inscripción y documentación a presentar
Criterios de valoración

P_21
Condiciones de participación

**Modalidad Autoedición**

P_22
A quién se dirige
Qué se ofrece
Funcionamiento y fechas de resolución
Gastos financiables

P_23
Inscripción y documentación a presentar
Criterios de valoración

P_24
Condiciones de participación

# Etengabeko deialdia

**Ekoiztu Uharte Zentroaren deialdi irekia eta jarraitua da, Zentroaren testuinguruan prozesu artistikoak garatzen laguntzeko.**

**Ekoizpen artistikoa zentzu zabalean ulertzen dugu, egitea, pentsatzea eta ikertzea bereizi gabe, eta nahitaez obra bat sortzera edo aurrez zehaztutako emaitza batera bideratu beharrik gabe.**

**Ekoiztuk denbora, espazioa eta baliabideak eskaini nahi ditu prozesu horiek garatzeko, eta baldintzak sortu nahi ditu Zentroan elkartzen diren praktikek eta pertsonek elkarrekin harremanak izateko, zalantzan jartzeko, ezagutzak partekatzeko eta elkarlanean aritzeko.**

**Deialdia hiru modalitatetan egituratzen da: Estudioak, Baliabideak eta Autoedizioa, laguntza eta ebazpen modu desberdinekin.**

# Deialdiaren helburuak

- Uharte Zentroan lan egiten duten edo lan egin nahi duten artisten lan baldintzak hobetzea, beren proiektuak hobeto garatu ditzaten.
- Uharte Zentroko espazio eta baliabideen erabilera sustatzea, egonaldien deialdi jarraituaren eskaintza osatuz eta zabalduz.
- Prozesu artistikoen garapena bultzatzea, denbora, espazioa, baliabide ekonomiko, tekniko eta materialak eta laguntza eskainiz.
- Ikerketa, esperimentazioa eta ekoizpen artistikoa erraztea, aldez aurretik zehaztutako emaitza batera bideratuta egon beharrik gabe.

Zalantzak eta galderak ondorengo helbide elektronikoan jasoko dira: formacion@centrohuarte.es

# Estudioak Modalitatea

Modalitate hau denbora, espazioa eta jarraitutasuna behar duten prozesu artistikoetarako pentsatuta dago. Sei hilabetez estudio bat eta proiektuaren garapenari eusten laguntzen dion laguntza ekonomikoa eskaintzen ditu, baita prozesuan zehar eztabaida, partekatzea eta hausnarketa bultzatzen dituen laguntza ere. Ez da beharrezkoa emaitza itxi bat lortzea edo prozesua amaitzea: bereziki interesatzen zaigu Zentroan egon bitartean gerta eta eralda daitekeena.

**Nori zuzendua**

Sei hilabeteko egonaldian Uharte Zentroan modu presentzialean eta jarraituan lan egin dezaketen edozein esparru eta jatorritako artista eta kolektiboei zuzendua.

**Zer eskaintzen da**

- Ebazpen bakoitzean hiru laguntza emango dira, bakoitza 3.000 eurokoa (BEZa barne, hala badagokio), proiektua garatzeko.
- Uharte Zentroko lan-espazioa sei hilabetez, bertan dauden baliabide tekniko eta teknologikoen erabilera barne.
- Ebaluazio-batzordearen laguntza proiektua garatzen den bitartean.
- Uharte Zentroko instalazioetan sortutako lanaren erakusketa publikoa.

**Funtzionamendua eta ebazpen datak**

Deialdia urte osoan zehar irekita egongo da, artistek eta taldeek beren proiektuak edozein unetan aurkezteko aukera izan dezaten, aurkezteko beste epe bat ireki arte itxaron beharrik gabe.

Urtean bitan ebatziko da, oinarri hauetan iragarritako ebazpen-datetan. Ebaluazio-batzordeak ebazpen-dataren aurreko hilabetera arte aurkeztutako proiektuak baloratuko ditu.

Hurrengo ebazpen-datak:

- 2026ko abenduaren 10a
- 2027ko ekainaren 3a

Ebazpen-datak ez du deialdiaren amaiera ekarriko, eta ez du proiektu berriak aurkeztea eragotziko. Data horren ondoren aurkeztutako proiektuak deialdiaren hurrengo ebazpenean hartuko dira kontuan.

Hautatutako proiektuen egonaldien hasiera- eta amaiera-data zehatzak honako hauek izango dira:

- 2027ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era
- 2027ko uztailaren 19tik abenduaren 31ra

## ESTUDIOAK MODALITATEA

### Izen ematea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Deialdian izena emateko beharrezkoa izango da Uharte Zentroko webguneko inprimaki digitala betetzea.

Bertan, ondorengo informazioa jaso beharko da dokumentu bakarrean eta PDF formatuan* (izena_abizena.pdf, 5 mb gehienez):

- Proiektuaren laburpena (500 karaktere gehienez, espaziorik gabe).
- Proiektua (3.000 karaktere gehienez, espaziorik gabe).
- Motibazio gutuna (1.000 karaktere gehienez, espaziorik gabe).
- Proiektuaren ulermena errazteko aurretiko edota proposamenarekin lotutako lanen irudiak (bideoen kasuan, loturak gehitu) (15 irudi gehienez).
- Gutxi gorabeherako kronograma edo lan-egutegia (orrialde bateko luzera gehienez).
- Parte-hartzaileen biografia edo curriculuma (parte-hartzaile bakoitzeko 2 orrialde gehienez).
- Kolektiboen kasuan (pertsona bat baino gehiago haien artean forma juridikorik izan gabe) ordezkari bat izendatuko da Uharte Zentroaren izango duen harremanetarako.

### Balorazio irizpideak

Proiektuen hautaketa ebaluazio-batzordeak eta Uharte Zentroko lantaldeak egingo dute, irizpide hauen arabera:

- Kalitate artistikoa, bideragarritasun ekonomikoa eta eskainitako baliabideetara eta egutegira egokitzeko gaitasuna.
- Proposamenaren eta haren gaiaren interesa, Uharte Zentroko lan-ildoekin eta ebaluazio-batzordera gonbidatutako pertsonekin duten harremanari dagokionez.
- Ikerketa artistikoan sakontzeko borondatea.
- Ibilbide artistikoaren edota haren proiekzio potentzialaren interesa eta koherentzia.
- Aurrez egonaldiren bat izan badu, parte hartzeko baldintzak ere bete izana.
- Kanpoan geratzen dira azken bi deialdietan estudio modalitatean Ekoiztu laguntza jaso duten autagaiak.
- Uharte Zentroko laborategien eta espazioen erabilera jarraia sustatzen duten proiektuei lehentasuna emango zaie.

*
**GARRANTZITSUA**
Oinarri hauetan jasotakoaren arabera, ez dira baloratuko eskatutako dokumentazio guztia aurkezten ez duten proiektuak.

## ESTUDIOAK MODALITATEA

### Parte hartzeko baldintzak

Deialdi honetara aurkezteak berarekin dakar oinarri hauek eta konpromiso hauek onartzea:

- Uharte Zentroaren funtzionamendu-araudia betetzea; horrek esan nahi du Uharte Zentroko lan-espazioak eta ekipamenduak zaindu behar direla, eta, laguntza amaitutakoan, espazioa aurkitu zen baldintzetan utzi behar dela.
- Proiektua Uharte Zentroan egitea, zentrora hurbiltzen diren kultura-eragileekin elkarreragiteko eta artisten arteko topaketetan edota Estudio Irekietan parte hartzea.
- Zentroarekin adostutako datan eta moduan egindako lana erakustea, eta Uharte Zentroak egiten duen komunikazio-lana erraztea.
- Proiektuaren garapena ebaluazio-batzordearekin partekatzea. Batzorde honek, egoitzak iraungo duen hilabeteetan, hautatutako hiru proiektuei lagunduko die.
- Laguntza hauek bateraezinak dira Uharte Zentroak proiektu bererako emandako beste laguntza batzuekin.
- Hautatutako lanak egilearen edo egileen jabetzakoak izanen dira. Uharte Zentroak programa osoa edo zati bat erreproduzitu eta zabaldu ahal izango du, on line edo paperezko argitalpen bidez, betiere kasuan kasuko egileak aipatuta. Uharte Zentroak deialdi honetatik sortzen diren agiri guztiak artxibatuko ditu.
- Proiektuak argitalpenak, web orria, bideoak edo abar argitalpena badakar, proiektuak laguntza hau jaso duela adierazi beharko da esaldi honekin: *Este proyecto ha recibido el apoyo de la convocatoria Ekoiztu del Centro Huarte / Proiektu honek Uharte Zentroko Ekoiztu dealdiaren babesa jaso du*, eta Zentroaren logotipoarekin. Gainera, Uharte Zentroak formula hori behar bezala txertatzeko baimena eman beharko du.
- Amaieran, proiektuaren garapena deskribatzen duen memoria aurkeztu beharko da (argazkiak edota bideoak barne)*.

*
**GARRANTZITSUA**
memoria adierazitako egunean ez aurkezteak eta adostutako baldintzak ez betetzeak laguntza galtzea ekarriko dute.

# Baliabideak Modalitatea

Modalitate hau Uharte Zentroko laborategiak, ekipamenduak eta ezagutza teknikoak behar dituzten proiektuetarako pentsatuta dago. Ekoizpen, ikerketa eta esperimentazio materialeko prozesuak erraztu nahi ditu, baliabide horiekin lan egiteko beharrezkoak diren gastu batzuk estaliz. Laguntza prozesuan eta Zentroko azpiegituren erabileraren bidez esperimentatu eta garatu daitekeen horretan oinarritzen da bereziki.

**Nori zuzendua**

Uharte Zentroan modu presentzialean lan egin dezaketen edozein esparru eta jatorritako artista eta kolektiboei zuzendua.

**Zer eskaintzen da**

- Proiektu bakoitzeko gehienez 1.500 euroko laguntzak.
- Uharte Zentroko baliabide tekniko eta teknologikoen erabilera
- Uharte Zentroko taldearen laguntza eta jarraipena proiektuaren garapenean.

**Funtzionamendua eta ebazpen**

Deialdia urte osoan zehar irekita egongo da, artistek eta taldeek beren proiektuak edozein unetan aurkezteko aukera izan dezaten, Uharte Zentroak eskaintzen dituen baliabideak eta laguntza behar dituztela uste dutenean.

Ez da ebazpen-data zehatzik ezarriko. Uharte Zentroko lantaldeak zehaztuko ditu ebazpen-uneak, jasotako proposamenen eta aurkeztutako proiektuen beharren arabera.

Uharte Zentroak hilabeteko aurrerapenarekin jakinaraziko du ebazpen-data. Data hori baino hilabete lehenagora arte aurkeztutako proiektuak hartuko dira kontuan.

Ondoren jasotako proiektuak deialdiaren hurrengo ebazpenean baloratuko dira.

Memoria teknikoa eta ekonomikoa entregatzeko data Zentroko lantaldearekin adostuko da, proiektuaren beharrak kontuan hartuta, baina ezingo da sei hilabetetik gorakoa izan.

**Finantziatu daitezkeen gastuak**

- Uharte Zentroko laborategien erabilerarekin zuzenean lotuta dauden eta hautatutako proiektua garatzeko aldian egiten diren gastu kontsumigarriak finantzatuko dira.
- Neurri txikiagoan, proiektua osatzeko beharrezkoak diren kostuak diruz lagunduko dira, Uharte Zentroko ekipamenduarekin lotuta ez badaude ere, baita profesionalei zerbitzu teknikoengatik egindako ordainketak ere. →

**BALIABIDEAK MODALITATEA**

- Edozein kasutan kanpoan geratzen dira ordainsari propioak edo zerbitzu teknikoen kategorian sartzen ez direnak ekipamendu suntsiezina, dietak eta joan-etorriak. Emandako zenbatekoa aurkeztutako aurrekontuari egokituko zaio, diruz lagundu ezin diren gastuak kenduta.
- 50 eurotik gorako gastu guztiak bankuko transferentzia edo txartelaren bidez ordaindu beharko dira, eskudiruzko ordainketak saihestuz eta ziurtagiriak aurkeztuz.

**Izen ematea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Deialdian izena emateko beharrezkoa izango da Uharte Zentroko webguneko inprimaki digitala betetzea.

Bertan, ondorengo informazioa jaso beharko da dokumentu bakarrean eta PDF formatuan* (izena_abizena.pdf, 5 mb gehienez):

- Proiektuaren laburpena (500 karaktere gehienez, espaziorik gabe).
- Proiektua (3.000 karaktere gehienez, espaziorik gabe). Ekoizpen fasean badago, bere materializazioa nola gauzatuko den azaldu beharko da ahalik eta modu zehatzenean. Proiektua, aldiz, esperimentazio fasean badago, helburua eskura dauden ekipamendu ezberdinak erabiltzea izanen da etorkizuneko proiektuari hobekien heldu zaizkion prozesu artistikoak ezagutzeko.
- Proiektuaren ulermena errazteko aurretiko edota proposamenarekin lotutako lanen irudiak (bideoen kasuan, loturak gehitu) (15 irudi gehienez).
- Gutxi gorabeherako kronograma edo lan-egutegia (orrialde bateko luzera gehienez).
- Proiektua egiteko behar diren materialen gutxi gorabeherako gastuen aurreikuspena (orrialde bateko luzera gehienez).
- Parte-hartzaileen biografia edo curriculuma (parte-hartzaile bakoitzeko 2 orrialde gehienez).
- Kolektiboen kasuan (pertsona bat baino gehiago haien artean forma juridikorik gabe), ordezkari bat izendatuko da Uharte Zentroarekiko harremanetarako. →

*
**GARRANTZITSUA**
Oinarri hauetan jasotakoaren arabera, ez dira baloratuko eskatutako dokumentazio guztia aurkezten ez duten proiektuak.

## BALIABIDEAK MODALITATEA

**Balorazio irizpideak**

Proiektuak Uharte Zentroko langileek hautatuko dituzte irizpide hauen arabera:

- Huarte Zentroaren azpiegitura, baliabideak eta aholkularitza teknikoa erabiltzeko benetako beharra justifikatzen duten proiektuei emango zaie lehentasuna. Alde horretatik, lan-prozesua, ikerketa eta esperimentazio teknikoa lehenetsiko dira erakusketen azken produkziora bideratutako formatuen aurretik, azken horiek ez baitatoz bat laguntza-lerro honen helburu nagusiarekin.
- Proiektuaren kalitate artistikoa, bideragarritasun ekonomikoa eta eskainitako baliabideetara eta egutegira egokitzeko gaitasuna.
- Proposamenaren eta gaiaren interesa Uharte Zentroaren jarduera-ildoei dagokienez.
- Pertsonaren edo pertsonen esperientzia edota kualifikazioa.
- Azken bi deialdietan laguntza hauek jaso ez izana baloratuko da.

**Parte hartzeko baldintzak**

Deialdi honetara aurkezteak berarekin dakar oinarri hauek eta konpromiso hauek onartzea:

- Proiektua Uharte Zentroko ekoizpen-laborategiak erabiliz gauzatzea txostenean azaldu den moduan. Aldaketa garrantzitsurik egin behar bada proiektuan, Uharte Zentroko arduradunei jakinaraztea ezinbestekoa da.
- Laguntza hauek jasotzea ez da bateraezina beste erakunde batzuek proiektu bererako emandako beste laguntza batzuekin, baldin eta diruz laguntzen diren gastuak ez badira Uharteko Zentroak bere gain hartutakoak.
- Laguntza hauek bateraezinak dira Uharte Zentroak proiektu bererako emandako beste laguntza batzuekin, egonaldien deialdia izan ezik.
- Hautatutako lanak egilearen edo egileen jabetzakoak izanen dira. Uharte Zentroak programa osoa edo zati bat erreproduzitu eta zabaldu ahal izango du, online edo paperezko argitalpen bidez, betiere kasuan kasuko egiletzak aipatuta. Uharte Zentroak deialdi honetatik sortzen diren agiri guztiak artxibatuko ditu.

**BALIABIDEAK MODALITATEA**

- Proiektuak argitalpenen, web orrien, bideoen etab. edizioa badakar, proiektuak laguntza hau jaso duela adierazi beharko da esaldi honekin: *Este proyecto ha recibido el apoyo de la convocatoria Ekoiztu del Centro Huarte / Proiektu honek Uharte Zentroko Ekoiztu deialdiaren babesa jaso du*, eta Zentroaren logotipoarekin. Gainera, Uharte Zentroak formula hori behar bezala txertatzeko baimena eman beharko du.
- Amaieran, proiektuaren garapena deskribatzen duen memoria aurkeztu beharko da (argazkiak edota bideoak barne), baita egindako gastuen justifikazioa ere (ordainketen fakturak eta egiaztagiriak eta horien azalpen laburra)*.

*
**GARRANTZITSUA**
bi agiriak adierazitako egunean ez aurkezteak laguntza galtzea ekarriko du.

# Autoedizioa Modalitatea

Modalitate hau izaera artistikoko argitalpen-proiektuei zuzenduta dago, autoedizioa sorkuntza-prozesuaren zati gisa aztertu nahi dutenei. Bereziki, RISO inprimaketaren aukerak eta hori Zentroko laborategietan eskuragarri dauden beste prozesu batzuekin, hala nola grabatuarekin edo koadernaketarekin, konbinatzen dituzten proposamenetara bideratuta dago. Argitalpena azken euskarri gisa soilik ulertu beharrean, haren dimentsio materiala eta esperimentala, baita praktika kolektibo gisa duen izaera ere, interesatzen zaigu.

**Nori zuzendua**

Uharte Zentroan modu presentzialean lan egin dezaketen edozein esparru eta jatorritako artista eta kolektiboei zuzendua.

**Zer eskaintzen da**

- Proiektu bakoitzeko gehienez 1.000 euroko laguntzak.
- Uharte Zentroko baliabide tekniko eta teknologikoen erabilera
- Uharte Zentroko taldearen laguntza eta jarraipena proiektuaren garapenean.

**Funtzionamendua eta ebazpen**

Deialdia urte osoan zehar irekita egongo da, artistek eta taldeek beren proiektuak edozein unetan aurkezteko aukera izan dezaten, Uharte Zentroak eskaintzen dituen baliabideak eta laguntza behar dituztela uste dutenean.

Ez da ebazpen-data zehatzik ezarriko. Uharte Zentroko lantaldeak zehaztuko ditu ebazpen-uneak, jasotako proposamenen eta aurkeztutako proiektuen beharren arabera.

Uharte Zentroak hilabeteko aurrerapenarekin jakinaraziko du ebazpen-data. Data hori baino hilabete lehenagora arte aurkeztutako proiektuak hartuko dira kontuan.

Ondoren jasotako proiektuak deialdiaren hurrengo ebazpenean baloratuko dira.

Memoria teknikoa eta ekonomikoa entregatzeko data Zentroko lantaldearekin adostuko da, proiektuaren beharrak kontuan hartuta, baina ezingo da sei hilabetetik gorakoa izan.

**Finantziatu daitezkeen gastuak**

- Uharte Zentroko laborategien erabilerarekin zuzenean lotuta dauden eta hautatutako proiektua garatzeko aldian egiten diren gastu kontsumigarriak finantzatuko dira.
- Neurri txikiagoan, proiektua osatzeko beharrezkoak diren kostuak diruz lagunduko dira, Uharte Zentroko ekipamenduarekin lotuta ez badaude ere, baita profesionalei zerbitzu teknikoengatik egindako ordainketak ere. →

**AUTOEDIZIOA MODALITATEA**

- Edozein kasutan kanpoan geratzen dira ordainsari propioak edo zerbitzu teknikoen kategorian sartzen ez direnak ekipamendu suntsiezina, dietak eta joan-etorriak. Emandako zenbatekoa aurkeztutako aurrekontuari egokituko zaio, diruz lagundu ezin diren gastuak kenduta.
- 50 eurotik gorako gastu guztiak bankuko transferentzia edo txartelaren bidez ordaindu beharko dira, eskudiruzko ordainketak saihestuz eta ziurtagiriak aurkeztuz.

**Izen ematea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Deialdian izena emateko beharrezkoa izango da Uharte Zentroko webguneko inprimaki digitala betetzea.

Bertan, ondorengo informazioa jaso beharko da dokumentu bakarrean eta PDF formatuan* (izena_abizena.pdf, 5 mb gehienez):

- Proiektuaren laburpena (500 karaktere gehienez, espaziorik gabe).
- Proiektua (3.000 karaktere gehienez, espaziorik gabe). Ekoizpen fasean badago, bere materializazioa nola gauzatuko den azaldu beharko da ahalik eta modu zehatzenean. Proiektua, aldiz, esperimentazio fasean badago, helburua eskura dauden ekipamendu ezberdinak erabiltzea izanen da etorkizuneko proiektuari hobekien heldu zaizkion prozesu artistikoak ezagutzeko.
- Argitalpenaren behin-behineko maketa eta proposamenarekin lotutako lanen irudiak, proiektua hobeto ulertzeko (bideoen kasuan, estekak erantsi beharko dira) (gehienez 15 irudi).
- Proiektuaren aurrekontu banakatu eta xehatua, laguntza honen bidez zein gastu eskatzen diren adierazita (gehienez orrialde 1).
- Cronograma o calendario de trabajo aproximado (máximo 1 página).
- Parte-hartzaileen biografia edo curriculuma (parte-hartzaile bakoitzeko 2 orrialde gehienez).
- Kolektiboen kasuan (pertsona bat baino gehiago haien artean forma juridikorik gabe), ordezkari bat izendatuko da Uharte Zentroarekiko harremanetarako

*
**GARRANTZITSUA**
Oinarri hauetan jasotakoaren arabera, ez dira baloratuko eskatutako dokumentazio guztia aurkezten ez duten proiektuak.

## AUTOEDIZIOA MODALITATEA

### Balorazio irizpideak

Proiektuak Uharte Zentroko langileek hautatuko dituzte irizpide hauen arabera:

- Bereziki baloratuko dira autoedizio-proposamenaren singularritasuna eta interesa, bai eta sormenaren edo arte garaikidearen testuinguruari egindako ekarpena ere.
- RISO teknika ikertzen eta bertan esperimentatzen duten proposamenak bilatzen ditugu; gure 13 kolore-danborren ahalmena eta potentziala proban jartzen duten lanak lehenetsiko dira.
- Autoedizioari lotutako ekoizpen- eta amaiera-prozesuak txertatzea baloratuko da, RISO inprimaketa grabatu-teknikekin, maketazioarekin, koadernaketarekin zein Uharte Zentroko laborategietan eskuragarri dauden bestelako baliabideekin konbinatzea barne.
- Proposamenaren heldutasun- eta garapen-maila baloratuko da; inprimaketa- eta ekoizpen-prozesuak hasteko prest edo fase aurreratuan dauden edukidun, diseinudun eta materialdun proiektuak lehenetsiko dira.
- Bideragarria izatea baloratuko da: proiektua eskuragarri dauden baliabide eta gaitasun teknikoetara egokitzea, bai eta materialen aurrekontuaren, argitalpenaren ezaugarrien eta aurreikusitako ale-kopuruaren arteko koherentzia ere.

### Parte hartzeko baldintzak

Deialdi honetara aurkezteak berarekin dakar oinarri hauek eta konpromiso hauek onartzea:

- Proiektua Uharte Zentroko ekoizpen-laborategiak erabiliz gauzatzea txostenean azaldu den moduan. Aldaketa garrantzitsurik egin behar bada proiektuan, Uharte Zentroko arduradunei jakinaraztea ezinbestekoa da.
- Laguntza hauek jasotzea ez da bateraezina beste erakunde batzuek proiektu bererako emandako beste laguntza batzuekin, baldin eta diruz laguntzen diren gastuak ez badira Uharteko Zentroak bere gain hartutakoak.

**AUTOEDIZIOA MODALITATEA**

- Laguntza hauek bateraezinak dira Uharte Zentroak proiektu bererako emandako beste laguntza batzuekin, egonaldien deialdia izan ezik.
- Hautatutako lanak egilearen edo egileen jabetzakoak izanen dira. Uharte Zentroak programa osoa edo zati bat erreproduzitu eta zabaldu ahal izango du, online edo paperezko argitalpen bidez, betiere kasuan kasuko egiletzak aipatuta. Uharte Zentroak deialdi honetatik sortzen diren agiri guztiak artxibatuko ditu.
- Proiektuak argitalpenen, web orrien, bideoen etab. edizioa badakar, proiektuak laguntza hau jaso duela adierazi beharko da esaldi honekin: *Este proyecto ha recibido el apoyo de la convocatoria Ekoiztu del Centro Huarte / Proiektu honek Uharte Zentroko Ekoiztu deialdiaren babesa jaso du*, eta Zentroaren logotipoarekin. Gainera, Uharte Zentroak formula hori behar bezala txertatzeko baimena eman beharko du.
- Amaieran, proiektuaren garapena deskribatzen duen memoria aurkeztu beharko da (argazkiak edota bideoak barne), baita egindako gastuen justifikazioa ere (ordainketen fakturak eta egiaztagiriak eta horien azalpen laburra)*.

*
**GARRANTZITSUA**
bi agiriak adierazitako egunean ez aurkezteak laguntza galtzea ekarriko du.

# Convocatoria continua

**Ekoiztu es una convocatoria continua del Centro Huarte para apoyar el desarrollo de procesos artísticos en el contexto del Centro.**

**Entendemos la producción artística en un sentido amplio, sin separar hacer, pensar e investigar y sin que tenga que estar necesariamente orientada a la realización de una obra o a un resultado previamente definido.**

**Ekoiztu busca ofrecer tiempo, espacio y recursos para desarrollar estos procesos y generar condiciones para que las prácticas y las personas que coinciden en el Centro puedan relacionarse, cuestionarse, compartir conocimientos y colaborar.**

**La convocatoria se articula en tres modalidades, Estudios, Recursos, y Autoedición con formas de apoyo y sistemas de resolución diferentes.**

# Objetivos de la convocatoria

- Mejorar las condiciones de trabajo de les artistas que trabajan o quieren trabajar en el Centro Huarte para conseguir un mayor desarrollo de sus proyectos.
- Favorecer el uso de los espacios y recursos del Centro Huarte complementando y ampliando la oferta de la convocatoria continua de estancias.
- Favorecer el desarrollo de procesos artísticos proporcionando tiempo, espacio, recursos económicos, técnicos y materiales y acompañamiento.
- Facilitar la investigación, la experimentación y la producción artística sin exigir que estén orientadas a un resultado previamente definido.

Las dudas y preguntas con respecto a estas bases se pueden remitir a la dirección de correo electrónico formacion@centrohuarte.es.

# Modalidad Estudios

Esta modalidad está pensada para procesos artísticos que necesitan tiempo, espacio y continuidad. Ofrece un estudio durante seis meses y una ayuda económica que ayuda a sostener el desarrollo del proyecto, junto con un acompañamiento que favorece el intercambio y la reflexión durante el proceso. No es necesario concluir u obtener un resultado cerrado: interesa especialmente aquello que puede suceder y transformarse durante el tiempo de estancia en el Centro.

**A quién se dirige**

Dirigida a artistas y colectivos de cualquier ámbito y procedencia que puedan desarrollar su trabajo de manera presencial y continuada en el Centro Huarte durante los seis meses de estancia.

**Qué se ofrece**

- En cada resolución se concederán tres ayudas de 3.000€ cada una (IVA incluido, si procede) para el desarrollo del proyecto.
- Espacio de trabajo en el Centro Huarte durante un periodo de seis meses, incluido el uso de los recursos técnicos y tecnológicos existentes.
- Acompañamiento durante el desarrollo del proyecto por parte de la comisión evaluadora.
- Muestra o presentación pública de los proyectos en las instalaciones del Centro Huarte.

**Funcionamiento y fechas de resolución**

La convocatoria permanecerá abierta de forma continuada durante todo el año, de manera que les artistas y colectivos puedan presentar sus proyectos en cualquier momento, sin necesidad de esperar a la apertura de un nuevo periodo de inscripción.

Se resolverá dos veces al año en las fechas de resolución anunciadas en estas bases. La comisión evaluadora valorará los proyectos presentados hasta un mes antes de la fecha de resolución.

Próximas fechas de resolución:

- 10 de diciembre de 2026
- 3 de junio de 2027

La fecha de resolución no supondrá el cierre de la convocatoria ni impedirá la presentación de nuevos proyectos. Los proyectos presentados con posterioridad a esta fecha serán tenidos en cuenta en la siguiente resolución de la convocatoria.

Las fechas concretas de inicio y finalización de las estancias de los proyectos seleccionados serán las siguientes:

- 1 de enero al 30 de junio de 2027
- 19 de julio al 31 de diciembre de 2027

## MODALIDAD ESTUDIOS

### Inscripción y documentación a presentar

Para la inscripción en la convocatoria será necesario rellenar el formulario de inscripción de la web del Centro Huarte.

En él, se deberá adjuntar la siguiente información en un único documento en formato PDF* (nombre_apellido.pdf, máximo 5 mb) que incluya:

- Resumen del proyecto (máximo 500 caracteres sin espacios).
- Proyecto (máximo 3.000 caracteres sin espacios).
- Carta de motivación (máximo 1.000 caracteres sin espacios).
- Imágenes de trabajos previos y/o relacionados con la propuesta para facilitar la comprensión del proyecto (en caso de vídeos, incluir enlaces) (máximo 15 imágenes).
- Cronograma o calendario de trabajo aproximado (máximo 1 página).
- Biografía o currículum de la persona o personas participantes (máximo 2 páginas por participante).
- En el caso de colectivos (sin exigirse formalización entre sus integrantes), se designará une representante para mantener la comunicación con el Centro Huarte.

### Criterios de valoración

La selección de los proyectos la realizará una comisión evaluadora y el equipo del Centro Huarte, según estos criterios:

- Calidad artística, viabilidad económica y su adecuación a los recursos y calendario ofrecidos.
- Interés de la propuesta y su temática en relación con las líneas de trabajo del Centro Huarte y las personas invitadas a la comisión evaluadora.
- Voluntad de profundizar en la investigación artística.
- Interés y coherencia de la trayectoria artística y/o proyección potencial de la misma.
- En el caso de haber disfrutado de una estancia anteriormente, cumplimiento de las condiciones de participación.
- Quedarán excluidos aquellos beneficiaries que hayan disfrutado de una ayuda Ekoiztu en la modalidad de Estudios en alguna de las dos últimas convocatorias.
- Se priorizará aquellos proyectos que promuevan un uso continuado del estudio ofrecido, los laboratorios y demás espacios del Centro Huarte.

*
**IMPORTANTE**
No se valorarán los proyectos que no presenten toda la documentación solicitada conforme a lo recogido en las presentes bases.

**MODALIDAD ESTUDIOS**

**Condiciones de participación**

El hecho de presentarse a esta convocatoria implica la aceptación de las presentes bases y de los siguientes compromisos:

- Cumplir la normativa de funcionamiento, lo cual implica un cuidado tanto de las personas que conforman la comunidad del Centro Huarte, como de los espacios de trabajo y los equipamientos, dejando una vez finalizada la estancia el espacio en las condiciones en las que se encontraron.
- Realizar el proyecto en el Centro Huarte para poder interactuar con diferentes agentes culturales que se acerquen al Centro, así como participar en los encuentros entre artistas que se programen y/o Estudios Abiertos.
- Mostrar el trabajo producido en la fecha y forma acordadas con el Centro y facilitar el trabajo de comunicación que realiza el Centro Huarte.
- Compartir el desarrollo del proyecto con la comisión evaluadora que, durante los meses de la residencia, realizará un acompañamiento a los tres proyectos seleccionados
- Estas ayudas son incompatibles con otras ayudas otorgadas por el Centro Huarte para el mismo proyecto.
- Los trabajos seleccionados serán propiedad de les autores. El Centro Huarte podrá reproducir y divulgar mediante publicaciones on-line o en formato papel la totalidad o parte del proyecto, siempre citando las respectivas autorías. El Centro Huarte archivará toda la documentación que se genere a partir de esta convocatoria.
- En el caso de que el proyecto conlleve la edición
En el caso de que el proyecto conlleve la edición de publicaciones, página web, vídeos, etc. se deberá reseñar que el proyecto ha recibido esta ayuda, con la frase: *Este proyecto ha recibido el apoyo de la convocatoria Ekoiztu del Centro Huarte / Proiektu honek Uharte Zentroko Ekoiztu deialdiaren babesa jaso du*, y el logotipo del Centro. Además, el Centro Huarte deberá dar la autorización a la inclusión adecuada de esta fórmula.
- Al finalizar, se deberá entregar una memoria que relate el desarrollo del proyecto(incluyendo imágenes y/o vídeos) *.

*
**IMPORTANTE**
La no entrega de la memoria final en la fecha indicada y el incumplimiento de los compromisos implicará la pérdida de esta ayuda.

# Modalidad Recursos

Esta modalidad está pensada para proyectos que necesitan hacer uso de los laboratorios, equipamientos y conocimientos técnicos del Centro Huarte. Busca facilitar procesos de producción, investigación y experimentación material, cubriendo algunos de los gastos necesarios para trabajar con estos recursos. El apoyo se centra especialmente en el proceso y en aquello que puede experimentarse y facilitarse mediante el uso de las infraestructuras del Centro.

**A quién se dirige**

Dirigida a artistas y colectivos de cualquier ámbito y procedencia que puedan desarrollar su trabajo de manera presencial en los laboratorios del Centro Huarte.

**Qué se ofrece**

- Ayudas de un máximo de 1.000 € por proyecto
- Uso de los recursos técnicos y tecnológicos existentes en el Centro Huarte
- Acompañamiento en el desarrollo del proyecto por parte del equipo del Centro Huarte.

**Funcionamiento y fechas de resolución**

La convocatoria permanecerá abierta de forma continua durante todo el año, de manera que les artistas y colectivos puedan presentar sus proyectos en cualquier momento, cuando consideren que necesitan los recursos y/o el acompañamiento ofrecidos por el Centro Huarte.

No se establecerán fechas concretas de resolución. El equipo del Centro Huarte determinará los momentos de resolución en función de las propuestas recibidas y de las necesidades de los proyectos presentados.

El Centro Huarte comunicará con un mes de plazo la fecha de resolución. Se tendrán en cuenta los proyectos presentados hasta un mes antes de dicha fecha.

Los proyectos recibidos posteriormente serán valorados en la siguiente resolución de la convocatoria.

La fecha de entrega de la memoria técnica y económica se concretará con el equipo del Centro teniendo en cuenta las necesidades del proyecto, pero no podrá ser superior a 6 meses desde la resolución.

**Gastos financiables**

Serán financiados los gastos fungibles que estén directamente relacionados con el uso de los laboratorios del Centro Huarte y que se realicen durante el periodo de desarrollo del proyecto seleccionado.

En menor medida, se subvencionarán los costes que resulten necesarios para completar el proyecto, aunque no estén relacionados con el equipamiento del Centro Huarte, así como el pago de servicios técnicos a profesionales.→

## MODALIDAD RECURSOS

Quedarán excluidos, en cualquier caso, los honorarios propios o que no entren en la categoría de servicios técnicos, el equipamiento no fungible, las dietas y los desplazamientos. El importe concedido se ajustará al presupuesto presentado, excluyendo los gastos no subvencionables.

Todos los gastos superiores a 50 € deberán ser pagados por transferencia bancaria o tarjeta de crédito/débito, evitando los pagos en efectivo y aportando el documento que acredite dichos pagos.

### Inscripción y documentación a presentar

Para la inscripción en la convocatoria será necesario rellenar el formulario de inscripción de la web del Centro Huarte.

En él, se deberá adjuntar la siguiente información en un único documento en formato PDF* (nombre_apellido.pdf, máximo 5 mb) que incluya:

- Resumen del proyecto (máximo 500 caracteres sin espacios).
- Proyecto (máximo 3.000 caracteres sin espacios). Éste deberá estar bien en fase de producción y se deberá indicar con la mayor exactitud posible cómo se prevé materializar la producción del mismo; o bien en fase experimentación con el objetivo de poder utilizar los equipamientos para conocer los procesos artísticos más adecuados para un futuro proyecto.
- Imágenes de trabajos previos y/o relacionados con la propuesta para facilitar la comprensión del proyecto (en caso de vídeos poner vínculos) (máximo 15 imágenes).
- Cronograma o calendario de trabajo aproximado (máximo 1 página).
- Presupuesto de los materiales (impuestos incluidos) necesarios para la producción del proyecto (máximo 1 página).
- Biografía o currículum de la persona o personas participantes (máximo 2 páginas por participante).
- En el caso de colectivos (sin exigirse formalización entre sus integrantes), se designará une representante para mantener la comunicación con el Centro Huarte.

*
**IMPORTANTE**
No se valorarán los proyectos que no presenten toda la documentación solicitada conforme a lo recogido en las presentes bases

### Criterios de valoración

La selección de los proyectos la realizará el equipo del Centro Huarte según estos criterios:

- Se priorizará aquellos proyectos que justifiquen una necesidad real de utilizar la infraestructura, recursos y asesoramiento técnico del Centro Huarte para su desarrollo. →

**MODALIDAD RECURSOS**

- En este sentido, se priorizará el proceso de trabajo, la investigación y la experimentación técnica frente a los formatos orientados a la producción final de exposiciones, los cuales no se alinean con el propósito principal de esta línea de ayudas.
- Calidad artística, viabilidad económica y su adecuación a los recursos y calendario ofrecidos.
- Interés de la propuesta y su temática en relación con las líneas de actuación del Centro Huarte.
- Experiencia y/o cualificación de la persona o personas solicitantes.

**Condiciones de participación**

El hecho de presentarse a esta convocatoria implica la aceptación de las presentes bases y de los siguientes compromisos:

- Materializar el proyecto utilizando los recursos del Centro Huarte de la forma en que se ha expuesto en el dossier. Cualquier cambio sustancial deberá informarse al Centro Huarte.
- La percepción de estas ayudas es compatible con otras ayudas para el mismo proyecto otorgadas por otros organismos, siempre que los gastos que subvencionen no sean aquellos asumidos por el Centro Huarte.
- Estas ayudas son incompatibles con otras ayudas otorgadas por el Centro Huarte para el mismo proyecto, a excepción de la convocatoria de estancias.
- Los trabajos seleccionados serán propiedad de le autore o autores. El Centro Huarte podrá reproducir y divulgar mediante publicaciones on-line o en formato papel la totalidad o parte del proyector, siempre citando las respectivas autorías. El Centro Huarte archivará toda la documentación que se genere a partir de esta convocatoria.
- En el caso de que el proyecto conlleve la edición de publicaciones, página web, vídeos, etc. se deberá reseñar que el proyecto ha recibido esta ayuda, con la frase: *Este proyecto ha recibido el apoyo de la convocatoria Ekoiztu del Centro Huarte / Proiektu honek Uharte Zentroko Ekoiztu deialdiaren babesa jaso du*, y el logotipo del Centro. Además, el Centro Huarte deberá dar la autorización a la inclusión adecuada de esta fórmula.
- Al finalizar, se deberá entregar una memoria que contenga el desarrollo del proyecto (incluyendo imágenes y/o vídeos), así como una justificación de los gastos realizados (con las facturas y justificantes

*
**IMPORTANTE**
La no entrega de ambos documentos finales en la fecha indicada implicará la pérdida de esta ayuda

# Modalidad Autoedición

Esta modalidad está destinada a proyectos editoriales de carácter artístico que quieran explorar la autoedición como parte del propio proceso de creación. Se orienta especialmente a propuestas que investiguen las posibilidades de la impresión RISO y su combinación con otros procesos disponibles en los laboratorios del Centro, como el grabado o la encuadernación. Más que entender la publicación únicamente como soporte final, interesa su dimensión material, experimental e incluso como práctica colectiva.

**A quién se dirige**

Dirigida a artistas y colectivos de cualquier ámbito y procedencia que puedan desarrollar su trabajo de manera presencial en los laboratorios del Centro Huarte.

**Qué se ofrece**

- Ayudas de un máximo de 1.000 € por proyecto
- Uso de los recursos técnicos y tecnológicos existentes en el Centro Huarte
- Acompañamiento en el desarrollo del proyecto por parte del equipo del Centro Huarte.

**Funcionamiento y fechas de resolución**

La convocatoria permanecerá abierta de forma continua durante todo el año, de manera que les artistas y colectivos puedan presentar sus proyectos en cualquier momento, cuando consideren que necesitan los recursos y el acompañamiento ofrecidos por el Centro Huarte.

No se establecerán fechas concretas de resolución. El equipo del Centro Huarte determinará los momentos de resolución en función de las propuestas recibidas y de las necesidades de los proyectos presentados.

El Centro Huarte comunicará con un mes de plazo la fecha de resolución. Se tendrán en cuenta los proyectos presentados hasta un mes antes de la fecha de dicha fecha.

Los proyectos recibidos posteriormente serán valorados en la siguiente resolución de la convocatoria.

La fecha de entrega de la memoria técnica y económica se concretará con el equipo del Centro teniendo en cuenta las necesidades del proyecto, pero no podrá ser superior a 6 meses.

**Gastos financiables**

Serán financiados los gastos fungibles que estén directamente relacionados con el uso de los laboratorios del Centro Huarte y que se realicen durante el periodo de desarrollo del proyecto seleccionado.

En menor medida, se subvencionarán los costes que resulten necesarios para completar el proyecto, aunque no estén relacionados con el equipamiento del Centro Huarte, así como el pago de servicios técnicos a profesionales.→

## MODALIDAD AUTOEDICIÓN

Quedarán excluidos, en cualquier caso, los honorarios propios o que no entren en la categoría de servicios técnicos, el equipamiento no fungible, las dietas y los desplazamientos. El importe concedido se ajustará al presupuesto presentado, excluyendo los gastos no subvencionables.

Todos los gastos superiores a 50 € deberán ser pagados por transferencia bancaria o tarjeta de crédito/débito, evitando los pagos en efectivo y aportando el documento que acredite dichos pagos.

### Inscripción y documentación a presentar

Para la inscripción en la convocatoria será necesario rellenar el formulario de inscripción de la web del Centro Huarte.

En él, se deberá adjuntar la siguiente información en un único documento en formato PDF* (nombre_apellido.pdf, máximo 5 mb) que incluya:

- Resumen del proyecto (máximo 500 caracteres sin espacios).
- Proyecto (máximo 3.000 caracteres sin espacios). deberá indicar con la mayor exactitud posible cómo se prevé materializar la producción del mismo; o bien en fase experimentación con el objetivo de poder utilizar los equipamientos para conocer los procesos artísticos más adecuados para un futuro proyecto.
- Maqueta provisional de la publicación, imágenes de trabajos relacionados con la propuesta para facilitar la comprensión del proyecto (en caso de vídeos poner vínculos) (máximo 15 imágenes).
- Presupuesto desglosado y detallado del proyecto, indicando cuáles se solicitan en esta ayuda (máximo 1 página).
- Cronograma o calendario de trabajo aproximado (máximo 1 página).
- Biografía o currículum de la persona o personas participantes (máximo 2 páginas por participante).
- En el caso de colectivos (sin exigirse formalización entre sus integrantes), se designará une representante para mantener la comunicación con el Centro Huarte.

*
**IMPORTANTE**
No se valorarán los proyectos que no presenten toda la documentación solicitada conforme a lo recogido en las presentes bases

### Criterios de valoración

La selección de los proyectos la realizará el equipo del Centro Huarte según estos criterios:

- Se valorará la singularidad y el interés de la propuesta de autoedición, así como su aportación al contexto de la creación o el arte contemporáneo.
- Buscamos propuestas que investiguen y experimenten con la técnica RISO, priorizando aquellos trabajos que pongan a prueba el potencial y la maquinaria de nuestros 13 tambores de color. →

## MODALIDAD AUTOEDICIÓN

- En este sentido, se priorizará el proceso de trabajo, Se valorará la incorporación de procesos de producción y acabado vinculados a la autoedición, incluyendo la combinación de impresión RISO con técnicas de grabado, maquetación, encuadernación y otros recursos disponibles en los laboratorios del Centro Huarte.
- Se priorizarán positivamente los proyectos colectivos, los procesos colaborativos y la participación de perfiles generacionales o contextos sociales con menor representación en este ámbito, con el fin de equilibrar su acceso a la autoedición
- Se valorará el grado de madurez y desarrollo de la propuesta, priorizando aquellos proyectos cuyos contenidos, diseño y materiales estén listos o en una fase avanzada para iniciar los procesos de impresión y producción.
- Se valorará la adecuación del proyecto a los recursos y capacidades técnicas disponibles, así como la coherencia entre el presupuesto de materiales, las características de la edición y el número de ejemplares previsto.
- Se valorará positivamente no haber recibido estas mismas ayudas en las dos últimas convocatorias.

### Condiciones de participación

El hecho de presentarse a esta convocatoria implica la aceptación de las presentes bases y de los siguientes compromisos:

- Materializar el proyecto utilizando los recursos del Centro Huarte de la forma en que se ha expuesto en el dossier. Cualquier cambio sustancial deberá informarse al Centro Huarte.
- La percepción de estas ayudas es compatible con otras ayudas para el mismo proyecto otorgadas por otros organismos, siempre que los gastos que subvencionen no sean aquellos asumidos por el Centro Huarte.
- Estas ayudas son incompatibles con otras ayudas otorgadas por el Centro Huarte para el mismo proyecto, a excepción de la convocatoria de estancias.
- Los trabajos seleccionados serán propiedad de le autore o autores. El Centro Huarte podrá reproducir y divulgar mediante publicaciones on-line o en formato papel la totalidad o parte del proyector, siempre citando las respectivas autorías. El Centro Huarte archivará toda la documentación que se genere a partir de esta convocatoria. →

**MODALIDAD AUTOEDICIÓN**

- En el caso de que el proyecto conlleve la edición de publicaciones, página web, vídeos, etc. se deberá reseñar que el proyecto ha recibido esta ayuda, con la frase: *Este proyecto ha recibido el apoyo de la convocatoria Ekoiztu del Centro Huarte / Proiektu honek Uharte Zentroko Ekoiztu deialdiaren babesa jaso du*, y el logotipo del Centro. Además, el Centro Huarte deberá dar la autorización a la inclusión adecuada de esta fórmula.
- Al finalizar, se deberá entregar una memoria que contenga el desarrollo del proyecto (incluyendo imágenes y/o vídeos), así como una justificación de los gastos realizados (con las facturas y justificantes de pagos y una explicación breve de los mismos) *.

*
**IMPORTANTE**
La no entrega de ambos documentos finales en la fecha indicada implicará la pérdida de esta ayuda

Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua